**OHIKO BATZAR OROKORRAREN AKTA**
**ACTA DE LA ASAMBLEA GENERAL ORDINARIA**

Casares Kultur Etxean, 2006ko martxoaren 25ean, Altzako Historia Mintegiaren Ohiko Batzar Orokorrari hasiera eman zitzaion goizeko 11.00etan, ondoko partaide hauekin: Jon Serrano, Antxon Alfaro, José Mari Cendoya (Mari Paz Sainz Ubarrechenaren izenean), Luis Mari Raya, Kepa Amondarain, Lazaro Altuna, Agustin Rodriguez, Vicente Indaberea, Javier Cantera, eta Iñigo Landa.

*En la Casa de Cultura Casares, a las 11.00 de la mañana del día 25 de marzo de 2006, se celebró la Asamblea General Ordinaria de Altzako Historia Mintegia con la participación de Jon Serrano, Javier Cantera, Antxon Alfaro, José Mari Cendoya (en nombre de Mari Paz Sainz Ubarrechena), Luis Mari Raya, Kepa Amondarain, Lazaro Altuna, Agustín Rodríguez, Vicente Indaberea, Javier Cantera, e Iñigo Landa.*

**1. Aurreko Batzarraren aktaren onarpena / Aprobación del acta de la Asamblea anterior**
2005eko otsailaren 12ko Ohiko Batzar Orokorraren akta onartua izan zen.
*Se aprobó el acta de la Asamblea General Ordinaria celebrada el 12 de febrero de 2005.*

**2. 2005. urteko memoriaren onarpena /** ***Aprobación de la memoria del año 2005***

**MEMORIA**

- **Altzako Tokiko Bilduma / Colección Local de Altza [Juan Carlos Mora]**

Altzako komunitateari buruzko material, fondo eta informazio-iturrien berreskuratzea, zaintzea eta zabaltzea da Tokiko Bildumaren helburu nagusia, Casareseko liburutegitik ematen den zerbitzua osatuz.
**DOKUMENTUEN BILKETA**: Aurten jaso dugun materiala hiru ataletan zatituko dugu:

- Historia-dokumentuak: Artxiboetako materialez osatua (protokoloak, aktak), jaso dugun kopurua 128 dokumentu da. Jatorria: Gipuzkoako Agiritegi Orokorra, Donostiako Udal Agiritegia eta Errenteriako Udal Agiritegia.
- Administrazio-materiala gehi argazkiak: Altzako elkarte, talde, jende eta erakundeek aurreko urteetan sortuta (eskutitzak, foiletoak, programak…), 1224 dokumentu inguru jaso dira, argazki zaharrak barne. Tomás Paulis herreratarrak utzitako argazki-bilduma azpimarratu behar da, 1000 negatibo baino gehiago direlarik.
- Egungo ekoizpena: Altzako edozein jendek eginiko, sortutako edota Altzarekin loturiko informazio-materiala (posterrak, eskutitzak, aldizkariak, artikuluak…). 176 dokumentu.

ATBn dagoen dokumentu kopurua: 5139.
**KATALOGAZIOA**: Access 2000 deituriko datu basean sailkatu dira hurrengo dokumentuak: 23 agiri historiko (131 argazki, 76 foileto, 12 aldizkari artikulu, 67 kartel, 112 administrazio-agiri, 6 festa-programa)
**HEDAPENA**: Beste urteetan bezala, Altzako elkarte eta taldeekin harremanetan jarraitzen dugu. Kanpoko kolektiboekin gure esperientzia erakusteko bildu garela aipatu behar. AHMk argitaratzen duen Estibaus buletinean berri esanguratsuenak ezagutzera ematen dira. Irailetik aurrean TBren datu-basea egokitzen ari da, etorkizunean Internetetik kontsultagarria izateko.
**KONTSULTA-ZERBITZUA**: 110 kontsulta izan ditugu 2005. urtean zehar, 2004. urtean baino 21 bisita gutxiago. Telefonoa, emailea eta bertako bisita kontsultak egiteko erak dira.

El objetivo de la Colección Local es recuperar, conservar y divulgar todo aquel material relacionado con la comunidad altzatarra, como un servicio complementario de la biblioteca de Casares.
**RECOPILACIÓN DE DOCUMENTOS**: El material reunido este año es el siguiente:

- Documentos históricos: hasta un total de 128, protocolos y actas, procedentes de estos archivos: Archivo General de Gipuzkoa, Archivo Municipal de Donostia y Archivo Municipal de Errenteria.
- Material administrativo y fotografías: producido por las asociaciones, grupos varios, personas y organizaciones altzatarras en tiempos pasados (cartas, folletos, programas...). Un total de 1224 documentos, fotografías incluidas. A destacar la colección fotográfica cedida por el herreratarra Tomás Paulis, con más de 1000 negativos fotográficos.
- Producción actual: material informativo referente a gente de Altza (posters, cartas, revistas, artículos...). 176 documentos.

Hasta el presente, en la Colección Local llevamos reunidos un total de 5139documentos.
**CATALOGACION**: Hemos catalogado el material en una base de datos Access 2000 110 documentos históricos, 270 fotos, 90 folletos, 90 artículos de revistas, 45 carteles, 60 documentos administrativos, 10 programas de fiestas.
**DIVULGACION**: Como en años anteriores hemos continuado manteniendo el contacto con las asociaciones y grupos de Altza. También nos hemos reunido con colectivos de fuera para transmitir nuestra experiencia. Las noticias más significativas del boletín Estibaus también se dan a conocer. Desde septiembre estamos adecuando la CL para poder ser consultada desde Internet.
**SERVICIO DE CONSULTA**: A lo largo de 2005 hemos recibido 110 consultas, 21 menos que el pasado 2004. El teléfono, el correo electrónico y en persona han sido las fórmulas utilizadas.

- **Hemeroteka [Javier Cantera]**

Eguneroko prentsan Altzari buruz argitaratzen dena biltzen jarraitu dugu.

Hemos continuado reuniendo las noticias que referentes a Altza se publican en la prensa diaria.

- **Ganbara Bilduma [Javier Cantera]**

Joan den urtean bildumak ordura arte zeraman gorako joera eten egin du, bere momentu gorena 2004ko San Martzial jaietan egindako erakusketa izan zelarik.
Etenaldiaren arrazoiak bizpahiru izan dira: lehenik eta behin, bilduma biltzeko leku baten falta oso garrantzitsua izan da: zertarako objektu berriak bildu ez badago leku bat objektu horiek erakusteko ezta modu egokian biltzeko ere? Bigarrenik: kolokan egon da proiektu beraren bideragarritasuna; eta hirugarrenik, koordinatzailearen aldetik ere arrazoi pertsonalak izan dira aurreko urteetan bezala bultzatzen utzi ez diotena .
Hala eta guztiz ere, hamahiru objektu berri bildu ditugu bildumarako, eta 2006. urteari begira bultzada berri bat ematea aurrikusi dugu.

El año 2005 ha sido un año que ha roto la tendencia “in crescendo” que llevaba la colección, y que tuvo su cenit en la exposición de San Marcial del año 2004.
El frenazo ha sido debido a varias causas: en primer lugar, la falta de local se ha impuesto de forma rotunda: ¿para qué adquirir más objetos si no hay lugar donde la gente pueda verlos ni siquiera donde guardarlos debidamente? Segundo: se ha planteado una incertidumbre sobre la viabilidad del proyecto; y tercero, ha habido razones personales del coordinador que le han impedido “tirar” como en años anteriores.
Así y todo se han incorporado trece objetos más a la colección, y se ha previsto un relanzamiento para 2006.

- **Ikerketa Beka / Beca de investigación [Iñigo Landa]**

Aitor Cerezo Baselga historialariak “II. Errepublika Altzan, udaletxeko akten bidez” ikerketa-lana burutu du, eta “Altza, Hautsa Kenduz VIII” liburuan argitaratuko da. Honekin, burutu egiten da VII. deialdiarekin jarritako helburua. Balorazioa oso positiboa da: batetik, hain garai interesgarriko dokumentazio eskuragaitza altzatarrek modu eroso batez kontsultatzeko moduan jarriko duelako eta, bestetik, euskaraz dagoelako. Azken hau oso garrantzitsua izan da guretzat, euskaraz oso gutxi baitago eta beharrezkoa iruditzen zaigulako arlo honetan ere euskararen aldeko apostua egitea.
Deialdi berrirako urratsak ematen hasi gara eta, espero dugu, finantziazioa lortzen badugu, beste ikerketa on bat eskaini ahal izatea.

El historiador Aitor Cerezo Baselga ha finalizado la investigación sobre el tema de “La IIª República en Altza a través de las actas municipales”, y cuyo resultado quedará recogido en “Altza, Hautsa Kenduz VIII”. De este modo, se culmina satisfactoriamente el camino emprendido con la séptima convocatoria de la beca. La valoración final es muy positiva porque pone al alcance de la mano un conjunto de documentación un tanto difícil, y además ha sido realizado en euskara. Esto último nos parece merece una mención especial por los escasos trabajos existentes en dicha lengua y la necesidad de reforzar la investigación en euskara.
Hemos dado ya los primeros pasos para buscar la imprescindible financiación que posibilite la realización de una nueva convocatoria.

- **Argitalpenak / Publicaciones [Iñigo Landa]**

- “Altza, Hautsa Kenduz VIII” liburua argitaratzeko prest utzi dugu. 2005. urte amaieran egin behar genuen aurkezpena baina atzeratu egin da Tomasene kultur etxe berriaren inaugurazioarekin bat egiteko. Emaitzarekin oso pozik geratu gara: oso maila oneko hamalau kolaborazioez osaturik dago, eta orain arteko alerik mardulena osatzea lortu dugu. Zenbaki honen 600 ale argitaratu dira.
- Estibaus Buletina: Aurten hiru zenbaki kaleratu ditugu, bakoitzeko 400 aleko tirada eginez.
- 2006. urteko egutegia: Aurten grabatu arloan artea egiten jarduten duen Txokolarte taldeari eskatu diogu egutegiaren diseinua egitea eta emaitza orijinala eta berritzailea izan da. Altzak arte garaikidearekin harreman handiago izatea beharrezkoa iruditu zaigu eta artistak, gainera, altzatarrak baldin badira, askoz hobeto. Tamaina handiko egutegiak (A3) 1.000 aleko tirada izan du eta poltsikoak 1.500. Beste urteetan bezala, herriko Olentzeroetan, dendetan eta kultur etxearen bitartez banatu dira.

- Hemos terminado de preparar para su publicación el último “Altza, Hautsa Kenduz VIII”, que si bien debería haber sido presentado a finales de 2005, se ha retrasado para hacerlo coincidir con la inauguración de la nueva casa de cultura de Tomasene. Hemos quedado muy satisfechos con el trabajo: catorce trabajos de un muy buen nivel, y el más grueso de los publicados hasta el momento. Este número ha tenido una tirada de 600 ejemplares.
- Boletín Estibaus: Este año hemos publicado tres números, con una tirada de 400 ejemplares cada uno
- Calendario del año 2006: el motivo y la composición de este año ha corrido a cargo del grupo de grabado Txokolarte. Nos parece muy interesante contar con la originalidad y la renovación que este grupo altzatarra podía aportar desde el arte contemporáneo. La tirada de los calendarios grandes (A3) ha sido de 1.000, y la de los de bolsillo de 1.500. Como en otros años, se han repartido en los Olentzeros, en las tiendas y las casas de cultura.

- **Lekukoak / Testigos [Antxon Alfaro]**

Iaz egindako lan guztia helburu batekin egin da: elkarrizketen grabaketak ondo prestatzea, bai formalki bai teknikoki.

- Elkarrizketak egiteko gidoia prestatu.
- Grabaketak egiteko aholkularitza teknikoa bilatu.
- Grabaketak egiteko behar den tresneria erosi.
- 50. hamarkadan Altzara etorri ziren zenbait pertsonekin kontaktatu.
- Pertsona hauek jaio ziren herrietako udaletxeetako ordezkariekin harremanetan jarri material grafikoa lortzeko.

Durante el pasado año básicamente todo el trabajo desarrollado ha estado enfocado a la preparación del proceso de grabación de las entrevistas tanto a nivel formal como técnico:

- Preparación del guión de las entrevistas.
- Asesoramiento sobre el proceso técnico de grabación de las mismas.
- Adquisición del material necesario para la realización de las grabaciones
- Realización de diversos contactos con personas que vinieron a vivir a Altza en los años 50.
- Contactos con ayuntamientos de procedencia de estas personas para obtener material grafico de apoyo a las entrevistas.

- **Excursiones / Ibilaldiak [Angel Calvo]**

Aurreko urtean, Arana haranera Aranzadik antolatutako txangora joan ginen (irailaren 5ean).
Azaroaren 19an Urbasara eta Ameskoetako Limitaciones mendialdera txango bat antolatu genuen, Aranzaduiako Balbino Garcia de Albisuren laguntzaz.

En 2005 acudimos el 5 de septiembre a la excursión organizada por Aranzadi al valle de Arana.
El 19 de noviembre organizamos una excursión a Urbasa y las Limitaciones de las Ameskoas, de la mano de Balbino García de Albisu (Aranzaduia).

- **ALTZANET [Antxon Alfaro]**

Aurreko urtetan egindako jarduerekin, aurten ere, jarraitu dugu. Bisitarien kopurua 34.870 izan da eta ia-ia 100.000 orri ikusi dira. Egindako ekintza nagusiak hauek izan dira:

- Urtean zehar Altzan antolatu diren ekintzen informazioa era digitalean eskaini dugu: web gunearen edota posta elektronikoaren bidez.
- Web gunearen orri nagusian atal berri bat ireki dugu: “Altza prentsan”. Atal honetan egunero egunkarietan Altzaren gainean azaltzen diren berriak jasotzen ditugu.
- Helbide elektronikoak, altza.net domeinuarekin, elkarte eta herritarren artean dohainik banatzen jarraitu dugu.
- Hiru posta zerrendak kudeatu ditugu: altzanet@altza.net , altza21@altza.net eta plana@altza.net.
- AHMren web gunearen kudeaketa egin da. Atal honetan aipatu behar dugu joan den urtean zehar “Altza, hautsa kenduz” bilduman argitaratu diren zortzi liburuak digitalizatu ditugu eta momentu honetan 129 artikuluak pdf formatuan on-line irakur daitezke.
- Estibaus buletinaren edizio elektronikoa eskaintzen jarraitu dugu.
- Joan den urtean zehar gure komunikazioetan SMS mezuen bidalketa web guneen bidez jarraitu dugu erabiltzen.
- Joan den urtean zehar foro gune bat martxan jarri genuen. Atal berri honekin gai desberdinen gainean (kultura, hirigintza, solidaritatea, kirolak….) iritziak emateko eta elkar trukatzeko aukera bat eskaini nahi dugu. Gune hau dinamizatzeko zenbait elkarteekin hitz egin dugu, baina ez da oraingoz ikusten erantzun handirik dagoenik.

Iaz bezala, ez litzaiguke gustatuko bukatzea aipatu gabe neurri batean proiektuaren garapena baldintzatzen duten bi egoera hauek: EDONOSTIA.NET Teknologia Berrien Zentruarekin elkarlana egiteko zailtasunak eta Donostiako Udalak dirulaguntzak banatzeko duen dinamika.

Hemos continuando con la dinámica de años anteriores. El numero de visitantes ha sido de 34870, visualizando 100.000 páginas. Las principales actividades llevadas a cabo han sido:

- Hemos ofrecido información en formato digital de las actividades organizas en Altza, a través de la página web y del correo electrónico.
- Hemos incluido en la página inicial una nueva sección “Altza en la prensa” donde diariamente recogemos las noticias que sobre Altza se publican.
- Hemos continuado extendiendo deforma gratuita entre las asociaciones y vecinos el uso del dominio altza.net en el correo electrónico.
- La gestión de tres listas de correo: altzanet@altza.net, altza2l @altza.net eta plana@altza.net.
- La gestión de la página web de AHM. En este apartado señalar que durante el pasado año procedimos a la digitalización de los 8 números que conforman la colección “Altza, hautsa kenduz”, pudiendo en la actualidad acceder on line a los 129 artículos publicados.
- Edición electrónica del boletín Estibaus
- Hemos profundizado en el uso de mensajes SMS a través de web en nuestras comunicaciones.
- Hemos puesto en marcha un foro para intercambiar opiniones sobre distintos temas (cultura, solidaridad, urbanismo, deportes…). Para dinamizar este espacio hemos realizado diversos contactos con varias asociaciones y colectivos siendo hasta el momento muy escasa la respuesta.

Por último, volver a repetir como el año anterior dos aspectos que están condicionando el desarrollo del proyecto Altzanet: la nula colaboración con el Centro de Nuevas Tecnologías EDONOSTIA.NET y la dificultad de hacer una mínima planificación debido al funcionamiento del Ayuntamiento de Donostia en el tema de las subvenciones.

- **Kanpoko harremanak, finantziazioa eta bazkideak / Relaciones exteriores, financiación y socios-as [Jon Serrano]**

HARREMANAK:

- Altzako Euskararen Plan Estrategikoarekin eta udalak bultzatutako Plan Komunitarioaren inguruan jarraitu dugu lanean.
- Bestelako elkarteekin: Herri Ametsa Ikastola, Altza XXI, Herri-pe auzo elkartea, Txokolarte...
- Partikularrak: Arantza Sagarzazu, Domingo Muras, Mª Luisa Santos, Félix Santos, Carmen Dorronsoro, Juan Quintanilla, Juan José Quintanilla, Nekane Eizagirre, Begoña Garcia, Mª Asun Curiel, Mª Angeles Chavarri, Paco Sagarzazu, eta Francisko Lasa.

FINANTZIAZIOA:
Gure jarduera aurrera eramateko finantziazio nahikoa lortu dugu.

RELACIONES:

- Hemos participado en las reuniones del Plan Estratégico del euskara, y del Plan Comunitario-
- Además, con estas asociaciones: Herri Ametsa Ikastola, Altza XXI, asociación de vecinos Herri-pe, Txokolarte...
- Particulares: Arantza Sagarzazu, Domingo Muras, Mª Luisa Santos, Félix Santos, Carmen Dorronsoro, Juan Quintanilla, Juan José Quintanilla, Nekane Eizagirre, Begoña Garcia, Mª Asun Curiel, Mª Angeles Chavarri, Paco Sagarzazu, y Francisko Lasa.

FINANCIACION:
Hemos conseguido la financiación suficiente para desarrollar nuestras actividades.

Idazkariak aurkeztutako 2005. urteko memoria aho batez onartzen da.
Batzordeak Pasaiako mugen gaiaren gainean sortu den egoera azaldu zuen Batzarraren aurrean, eta horren inguruan hartu dituen erabakiak aurkeztu zituen, bereziki Estibaus eta prentsaren bitartez argitaratutako iritzia. Eztabaida luze baten ondoren, non gai honi loturik dauden interesak eta xehetasunak mahaigaineratu ziren, Batzarrak aho batez on iritzia eman zion Batzordeak gai honetan emandako urratsei.
Era berean, Batzordeak gure elkartea zeinbait foroetan parte hartzeko dauzkan zailtasunak azaldu zituen. Izan ere, azken urteotan bilerak ugaritu dira gai ezberdinez hitz egiteko eta

Aprobación por unanimidad de la memoria del año 2005 presentada por el secretario.
La junta planteó ante la Asamblea la situación creada con el tema de las mugas de Pasaia y los pasos dados al respecto, en especial la declaración pública realizada de AHM y dada a conocer a través de Estibaus y de la prensa. Tras un amplio debate en el que se expusieron las diversas circunstancias e intereses que concurren en el tema, la Asamblea respaldó de forma unánime la actuación llevada a cabo por la junta.
Así mismo, la junta expuso las dificultades en la que se encuentra nuestra asociación para participar en los distintos foros vecinales que se han abierto a lo largo de los últimos años.

Altzako Historia Mintegian une honetan dauzkagun giza-baliabideak ez dira nahikoak gai serio horiei modu arduratsu batez erantzuteko. Horregatik, erabaki zen lehentasuna eman gure elkarteko jarduerei eta horien funtsionamendua ziurtatzea, oraingoz bestelako ardurak era ordezkaritza-lanak alboratuz.

Con los medios humanos que en la actualidad cuenta AHM nos encontramos muy limitados para participar con la debida responsabilidad en dichos foros, por lo que se decide priorizar y asegurar la buena marcha de nuestras actividades, relegando por el momento actividades de representación.

***3.*** **2004. urteko kontuen onarpena / *Aprobación de las cuentas del año 2004.***

| | SARRERAK | GASTUAK |
|---|---|---|
| Aurreko saldoa (2004/12/31) | 2.394,49 | |
| Bazkide kuotak | 1.651,82 | |
| Donostiako Kultur Patronatua (Dirulaguntza) | 470,49 | |
| Orona | 1.721,84 | |
| Interesak | 15,35 | |
| Beka | | 810,00 |
| Tokiko Bilduma (Kudeaketa) | 8.551,00 | 8.578,50 |
| Fototeka | 591,00 | 186,12 |
| Kudeaketa | | 229,81 |
| Estibaus Buletina | 600,00 | 584,99 |
| Altzanet | 1.098,51 | 1.797,06 |
| Artxibo Dokumentuak | | 16,12 |
| Informatika Materiala | | 243,35 |
| Ganbara Bilduma | | 147,00 |
| Lekukoak | | 857,85 |
| Egutegia | 450,25 | 451,00 |
| Txangoak | | 115,93 |
| Besteak | | 141,30 |
| **GUZTIRA . . .** | **17.544,75** | **14.159,03** |

**SALDOA (2005/12/31): 3.385,72 €**
**KUTXA Donostia Gipuzkoa**
**EUSKADIKO KUTXA**

- *KOBRATU EDO ORDAINDU GABE*

| | + | - |
|---|---|---|
| **Saldoa (2005/12/31)** | **3.385,72** | |
| Tokiko Bilduma (Kudeaketa) | 2.875,50 | 2.875,50 |
| Egutegia | 600,00 | |
| Donostiako Kultur Patronatua (Dirulaguntza) | 280,51 | |
| Lekukoak | * 975,39 | 1.999,00 |
| Altzanet | 1.063,89 | |
| Fototeka | 288,00 | |
| | | |
| | **9.469,01** | **4.874,50** |

**Saldoa (2005) ≈ 4.600 €**

Diruzainak aurkeztutako 2005. urteko balantzea aho batez onartua izan zen.

La Asamblea aprobó por unanimidad el balance de cuentas presentado por el Tesorero.

**4. 2006. urterako egitasmoa / Plan de actividades para el año 2006.**

Iazko lan-eskemarekin jarraitzea erabaki zen.:
2006 urtean AHM-k 20. urteurrena beteko du eta ospatzeko jarduera bereziak prestatzea planteatzen da, zehazteko geratzen dena.

Se decidió continuar con las líneas de trabajo del año anterior.
El año 2006 AHM cumple su vigésimo aniversario por lo que se propone y aprueba la realización de actividades extraordinarias para conmemorarlo.

**5. Bazkide berrien onarpena / Admisión de nuevos soci@s.**

Elkartean sartzeko zortzi eskabide berri onartu dira: 174 REGINA FERNANDEZ BOGA, 175 IÑAKI VIDAL CARBALLARES, 176 BLANCA OSES GASTON, 177 JUDITH LERTXUNDI OLASAGASTI, 178 JUAN GARBIZU ARANBURU, 179 EDURNE BARANDIKA TOLARETXIPI, 180 PEDRO MIGUEL HOYOS, 181 RAMON FERMIN GOROSBEL.

Era berean IÑIGO SUSTAETA SELLÉS (66) bazkideari baja ematea erabaki da, kuota ez ordaintzeagatik.

Fueron aceptados como nuevos socios/socias las siguientes solicitudes: 174 REGINA FERNANDEZ BOGA, 175 IÑAKI VIDAL CARBALLARES, 176 BLANCA OSES GASTON, 177 JUDITH LERTXUNDI OLASAGASTI, 178 JUAN GARBIZU ARANBURU, 179 EDURNE BARANDIKA TOLARETXIPI, 180 PEDRO MIGUEL HOYOS, 181 RAMON FERMIN GOROSBEL.

.

Así mismo, se decidió dar de baja por impago de cuotas al socio 66 IÑIGO SUSTAETA SELLÉS.

***6.* Bestelakoak / *Ruegos y preguntas.***

Besterik gabe batzarra amaitutzat eman zen.
Sin otro particular la asamblea general se dio por terminada.

Idazkaria — Lehendakaria

Iñigo Landa — Jon Serrano